

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

6.SAIOA

DATA: 2022-12-14
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 11 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia) eta Iraitz Lazkano (alkatea)- Goiener: Oier Etxeberria- Emun: Ihabar Arriaran.

AURKEZPENA – ESTATUTUEN PROPOSAMENA

Iraitz Lazkanok estatutu proposamen berria aurkeztu du. Bergarako estatutuak hartu dituzte oinarri gisa Hernanikoen ordeaz.

Egitura orokorri dagokionean honako proposamena egin du:

- *Organo sozialak:*
 - o *Batzar Orokorra*
 - o *Kontseilu Errektorea*
 - o *Zaintza Batzordea*

Ados egon dira parte hartzaileak.

- *Bazkide motak.*
 - o *Bazkide erabiltzaileak (fisikoak eta juridikoak)*
 - o *Bazkide langileak*
 - o *Bazkide laguntzaileak*

3 bazkide mota horiek proposatu dituzte. Sinpletzera joan dira, bazkide aukera gutxiago proposatu dituzte. Bazkide inbertsore eta zerbitzu emale figurak ez dituzte proposatu.

Ados egon dira parte hartzaileak, ez da aparteko ekarpenik egin.

Bazkide inbertsorearen figurak sortu kezka hasiera batean, norbaitek dirua interes batengatik jarri nahi baldin badu ez du bazkide bezala sartzeko aukera izango, baina lehenengo estatutuetan ez sartzea erabaki da.

- *Batzar orokorrean proportzionala:*
 - Bazkide erabiltzaileek %60*
 - Bazkide laguntzaileak: %30*
 - Bazkide langileak %10*

Bazkide horien arteko botere banaketa horrela proposatu da. Bazkide langilerik ez badago (hasiera batean ez da egongo) bazkide erabiltzaileek beteko dute zati hori.

Bazkide langilearen figura azaldu du Oierrek, etorkizun batean langile bat nahiko finko lanean ari baldin bada bazkide egitearen aukera dagoela eta horrela ulertu beharko litzakeela filosofikoki.

Bazkide laguntzaileetan Udala, Fagor eta herriko beste enpresa bat egoteko proposamena egin da. Herriko enpresa horrekin harremanetan jarrita daude eta estatutuen proposamena eskatu die. Ondoren hartuko dute erabakia.

Proporzioarekin ados azaldu dira parte hartzaileak.

- *Kontseilu errektorearen kide kopurua:*
 - Kontseilu Errektorearen osaera 7 kidekoa.*
 - Bazkide erabiltzaileak 4*
 - Bazkide laguntzaileak 2*
 - Bazkide langileak 1*

7 kideko kontseilu errektorea sortzea proposatu da. Kide dezente direla aipatu da baina proportzioak mantentzeko beharrezkoa ikusi da. Hala ere, kooperatibaren funtzionamenduan bilera handiagoak (orain artekoak bezala) egitea ere aurreikusten da.

Parte hartzaileak ados azaldu dira.

- *Bazkide mota bakoitzak egin beharreko kapital ekarpena.*
 - o *Bazkide erabiltzaile fisikoak: 40 euro*
 - o *Bazkide erabiltzaile juridikoak: 100 euro*
 - o *Lan bazkideak 40*
 - o *Bazkide laguntzaileak: 1000 euro.*

Bazkide erabiltzailea bakoitzak 40€ jartzea proposatu dute, 100€ gehiegi iruditu zaie jendea kaptatzerako orduan.

Erabiltzaile juridikoari dagokionean ere tarifa jaitzi da. 200€tatik 100€tara.

Lan bazkideari 40€ko ekarpena egiteko eskatuko zaio eta bazkide laguntzailearen figura beste herri batzuetan bezala mantendu dute.

Parte hartzaileak ados azaldu dira.

Estatutuetan jasoko den xedearen proposamena azaldu du ondoren eta ekarpenak jasotzeko eskaera egin du.

Ondasunak nahiz zerbitzuak hornitzea, **bazkideek eta bazkideekin bizi direnek erosteko**, erabiltzeko edo kontsumitzeko energiaren eremuan. Beraz, kooperatiba honen helburua energia komunitate baten jarduerak garatzea da, energia berriztagarrien erabilera sustatzeari buruzko Europako zuzentzauek ezarritako printzipioen arabera. Hala, irabazi finantzarioak eman beharrean, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-onurak emango dizkie bazkideei, kideei **eta, orokorrean, kooperatibak jarduten duen tokiari**. Horretarako, eremu hauetan jardungo du:

- Energia-kontsumoaren murrizketa, energia-eraginkortasuneko neurrien, prestakuntzaren, informazioaren eta aholkularitza-zerbitzuen bidez, baita birgaitze partzial, sakon eta integralaren arloko esku-hartzeak ere;

- Mugikortasunaren arloan energia-mendekotasuna murrizteko beharrezkoak diren jarduerak. Horretarako, honako lehentasun hauek errespetatuko dituzten plan eta zerbitzu espezifikoak

sustatuko dira: oinez ibiltzea; bizikletaz edo bitarteko mekanikoz joatea inolako sistema osagarriak erabili gabe; **garraio publikoa erabiltzea eta indartzea**; mugikortasun-baliabideak partekatzea, betiere jatorri berriztagarriko erregaiak erabiltzen badituzte.

- Energia berriztagarriari buruzko proiektuak sustatzea, komunitatean energia burujabetza lortzeko, gutxienez. Hauek izan daitezke:

- Eguzki-energia fotovoltaiako, eoliko eta hidroelektrikoko teknologietan oinarritutako elektrizitatea sortzeko proiektuak, batez ere.

- Beroa sortzeko/banatzeko proiektuak (beroa/hotza), hurbileko baliabideetan oinarrituta eta modu iraunkorrean tratatuak.

- Energiari lotutako ekipoak eta zerbitzuak modu mankomunatuan erostea, kolektibo osoari baldintza hobek eskaintzeko.

- Talde zaurgarriak integratzea, kooperatiba-printzipio unibertsalean oinarrituta, haien energia-mendekotasuna gutxitzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko jardueren bidez.

- Bazkideei eta haiekin bizi diren senideei, zuzenean edo zeharka bitartekari jardunez, ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea ahalik eta baldintzarik onenetan kalitate, informazio eta prezioari dagokienez. Ondasun eta zerbitzu horiek Kooperatibak hirugarrenei erosi ahal izango dizkie edo berak ekoitzi ditzake. Ondasun eta zerbitzu horien soberakina bazkide ez diren pertsonen edo erakundeen hornitu ahal izango zaizkie.

- Izaera bereko beste kooperatiba eta elkarte batzuekin interkooperazioa sustatu eta praktikatu. Ekonomia sozialaren eta kooperatibismoaren zabalpena egitea gure herrian edota eragin eremuan, tokian tokiko eragileen sareetan parte hartuz eta herritarren premia soziokulturalak eta ekonomikoak aseko dituen tokiko garapen burujabe baterantz joateko, ekintzaitza sozial eta kooperatiborako programen eta kooperatiba komunitarioen sustapen aktiboa egin, pertsona guztientzat irisgarria izango dena garatuz.

- Herritarren premia soziokulturalak eta ekonomikoak aseko dituen tokiko garapen burujabe baterantz joateko, ekintzaitza sozial eta kooperatiborako programen eta kooperatiba komunitarioen sustapen aktiboa, pertsona guztientzat irisgarria dena garatzea.

PLANGINTZA OROKORRA

- **Herrira begirako aurkezpena egingo da urtarrila bukaeran**
 - o Zer eta nola kontatu zehaztu beharko da
 - o Lehenengo kooperatiba aurkeztea erabaki da, ondoren proiektua
 - o Komunikazio lantaldeak aurrelanketa bat egingo du urtarrileko bilera baino lehenago

- **Kooperatiba martxoarako sortuko da**
 - o Estatutuak eguneratuko dira
 - Azken aldaketak sartu eta erreposoa eman
 - o Izen orokor bat jarriko da hasiera batean – Elgetako komunitate energetikoa - eta ondoren izen komertziala zehaztuko da. (eskolarekin abiatuko du prozesua)

- “Certificado negativo” dokumentua eskatuko da Eusko Jaurlaritzan eta Espaniako sisteman izena libre dagoen ikusteko. Horretarako 3 izen proposamen behar dira eta horien eskaera egin.
 - Eratze batzarra egin beharko da eta martxoan egitea aurreikusten da
 - Hasieran behar den dirua udalak emango duela esan du. Horretarako, plenoak bazkide izatea eta diru ekarpena onartu behar ditu.
 - Oposizioan dauden alderdiekin bilera egin
- **Frontoiko proiektua kooperatiba egin ondoren (paraleloan hasiko da lanketa) ahalik eta azkarren martxan jartzea proposatu da. 2023ko urte bukaerarako proiektua eta xehetasun guztiak lotuta izatea aurreikusi da.**
- Elgetarren energia kontsumoaren kurba aztertu
 - Instalatzaile ezberdinak bilatu - erabaki
 - Proiektua egin – aurreikuspenak...
 - Nola banatuko den zehaztu, zenbat jende, nola finantzatu...

ETXEKO LANAK

EKINTZAK	NORK	EPEA
Xede proposamena irakurri eta ekarpenak egin	Denok	Ahalik eta azkarren
Estatutuak idazten bukatu	Talde juridikoa – Iraitz	Hurrengo bilerarako
Kooperatiba legalki sortzeko prozesuaren azalpena	Goienar - Oier	Iraitzi bidalita
“Certificación negativa” eskaera egin	Talde juridikoa	Ahalik eta azkarren
Plenoan aurkezteko egin beharrekoak egin	Udala – Iraitz / Ibai	Otsailean onartzeko
Eratze batzarra pentsatzen hasi – eguna, KE.ko kideak	Talde juridikoa	Otsailerako
Bazkide laguntzaile izango den enpresari estatutuak bidali	Talde juridikoa – Iraitz	Hurrengo bilerarako
Bideragarritasun excellaren inguruko kezka konpondu	Energia taldea – Oier	Hurrengo bilerarako
Bideragarritasun ariketa ezberdinak ekarri	Energia taldea	Hurrengo bilerarako
Elgetako herritarren kontsumo kurbaren azterketa	Goienar - Oier	Hurrengo bilerarako
Herrira begirako aukezpenean zer eta nola kontatu pentsatzen hasi	Komunikazio lantaldea	Hurrengo bilerarako

ITXIERA

Hurrengo bileretako planifikazioa:

Faseak	Eginbeharrekoak	Iraila	2022/10/5	2022/10/19	2022/11/2	2022/11/16	2022/11/30	2022/12/14
Hasiera ematea	Prozesua abiatu							
	Formazioak ahalduntzeko							
	EBK eta prozesua + espektatibak							
Prestatzea	Energia faktura - merkatu elektrikoa - pobrezia energ + xedea - helburua							
	Kooperatiba edo elkarte + talde lanketak abiatzea							
	Energia berriztagarriak - autokontsumoa ind. edo kolektiboa + estatutuak							
	EH.ko beste esperientzia batzuk + talde lanketak							
	Eratzte prozesua abiatu							
Elkarrekin sortzea	Lantaldeetako lanketak + etxeko lanak							
	...							

Hurrengo saioa urtarrilaren 11an, 18:30etan izango da. Urtarrila bukaeran egingo den aurkezpen saioa izango da puntu garrantzitsuena.